

Nafarroako kutxak, bateratze bidean

CAN eta CAMPeK hasiko duten prozesuaren ondorioz, berri bat sortuko da heldu den urtean

Erredakzioa / Iruñea

Nafarroako Aurrezki Kutxak (CAN) eta Iruñeko Kutxak (CAMP) bateratze prozesuari ekingo diote, bigarrenak CANen proposamena onartu eta gero. Dena espero bezala joaten bada, Nafarroak aurrezki kutxa berria izango du datorren urtean.

PROZESUA aspalditik zeto- rren arren, honen hasieraren baieztapen ofiziala ez zen aile- gatu herenegun arte, Iruñeko Kutxako Administrazio Kon- tseiluak aho batez onartu baitzuen ostegunean CANek bateratzeko egina zion gomi- ta.

Kontaktuak lehenagotik badatoz ere, bi aldeek ez dute orain arte akordioarik lortu egitasmo hau gauzatu ahal izateko. Aurten burutuko di- ren negoziazioetan bi kutxe- tako goreneko agintariak izango dira: Nafarroako Au- rrezki Kutxako lehendakari Miguel Sanz eta zuzendari ge- rente Lorenzo Riezu, batetik, eta Iruñeko Kutxako lehenda- kari Javier Chourraut eta zu- zendari Manuel Lopez Meri- no.

Bi kutxek, hala ere, zuhur- tasunez azaldu nahi izan du- te prozesu honetatik atera daitekeen emaitza. Hamar hi- labete pasatu dira CANek, Mi- guel Sanzen ekimenez, hala- ko egitasmoa gauzatzeko akordioa hartu zuenetik. Orain arteko oztopoak gaindi- tu arren, geroan ere iritzi kon- trajarriak izango dira batean zein bestean, baina alde biek espero dute erabateko ados- tasuna lortzeko. Izan ere, en- titate publiko guztiei dago- kien bezala, ordezkariak politiko- en interes desberdi- nak tartean dira.

Chorrraut atzeratzearen aldekoa zen

Miguel Sanz, CANeko burua, Nafarroako Gobernu- ko lehendakaria ere badugu UPN alderdiarekin. Iruñeko Kutxan, berriz, Sanzen lehe- nengo alderdikide bat dago lehendakari: Javier Chou- rraut (CDN). Nafarroako hiri- buruko alkatea da Chou- rraut, eta behin baino gehia- gotan mintzatu da fusioaren aferari herrialde honetan ekainean izango diren udal eta legebiltzarrerako hautes- kundeak baino lehen heltze- ren kontra. Hala ere, kontsei-



Nafarroako Aurrezki Kutxaren egoitza nagusia Iruñean.

lu barruko ordezkari politiko- ek —batez ere UPNk, PSOEk eta IUK— lehenbailehen baieztatu erantzun bat emate- ko presionatu dute.

Iruñeko Kutxak ostegune- an hartutako akordioaren ber- rri eman zion era ofizialean atzo Nafarroako Aurrezki Ku- txari. Hurrengo pausoa bi le- hendakari eta bi zuzendarien arteko bilera izango da. On- doren, bateratze prozesuaren alde eta urrats guztiak zehaz- tuko dituzten batzorde tekni- koak eratu dira, bi kutxeta- ko ordezkariak osatuak.

Denborari dagokionez, Na- farroako bi aurrezki kutxa nagusien fusio egitasmoa az- kenekoa dugu Hego Euskal Herriko gainontzeko herrial-

Bi kutxen emaitzak

Nafarroako Aurrezki Kutxa

Bezeroen errekurtsoak (milioi pezetatan): 580.724. **Maileguen bolumena (milioi pezetatan):** 379.117. **Langile kopurua:** 910. **Bulego kopurua:** 160. **Irabaziak zergen aurretik (milioi pezetatan):** 9.437. **Irabazi garbiak (mi- lioi pezetatan):** 6.858.

Iruñeko Kutxa

Bezeroen errekurtsoak (milioi pezetatan): 150.278. **Maileguen bolumena (milioi pezetatan):** 118.012. **Langile kopurua:** 376. **Bulego kopurua:** 105. **Irabaziak zergen aurretik (milioi pezetatan):** 1.100. **Irabazi garbiak (mi- lioi pezetatan):** 822.

deetan izan diren prozesue- kin konbaratuta. EAEko hiru probintzietan askoz lehenago gorpuztu zen herrialdeko eta hiriburuko entitate nagusiak elkartzeko proiektua.

Bi Kutxek 265 bat bulego dituzte, gehienak Nafarroan bertan. CANek egin ikerketa baten arabera, bulego horie- tatik 50, gutxienez, soberan izango dira fusioaren ostean.

BCHk eta Banco Santanderrek bat eginda, Europako hamargarren bakua sortuko da


Erredakzioa / Donostia

INORK espero ez zuenean, Banco Santanderreko eta Banco Central Hispanoko buruek, Emilio Botinek eta Jose Maria Amusatetik hurrenez hurren, finantza erakunde baten bat egitea iragarri zuten atzo. Fusioaren ondorioz, Europako bede- ratzigarren bankurik han- diena sortuko dute. Banku berriak Banco Santander Central Hispano izena izango du.

Bategitea tituluak truka- tuz burutuko dute, eta BCHko akziodunei bost akzio-ko Banco de Santan- derreko hiru emango diz- kiete.

Espainiako Bankuak dagoeneko bategite prozedu- rari argi berdea eman dio. Operazio amaitzen denean sortuko den erakunde berriak 39 bilioi pezetako aktiboak izango ditu, eta Espainiako banketxe naga- sia izango da. Europako banketxe handien zerren- dan, hamargarren tokia har- tuko du Banco Santander Central Hispanok.

Hego Amerikan, orain artean Espainiako banke- txeen artean BBV nagusi zen esparruan, zabal heda- tuta egongo da bankutxe berria, eta 600.000 milioi pezetako partehartzea izan- go du hango banku berriak.



Emilio Botin, Banco Santanderreko presidentea, eta Jose Maria Amusategi, Banco Central Hispanoko burua.

GUILLÉN / EFE